

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Indarrean dagoen Eraikin Publikoetako Mantentze lanen Arduradun deialdia 8 plazetara handitzea (7 plaza derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunarekin eta plaza 1 derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza eskakizunarekin) 2021eko EEPren onarpenaren ondorioz.

Lehenengoa: Txanda irekitik eta oposizio sistema bidez Administrazio Bereziko Eskalako (Zerbitzu Berezien Azpieskalako, Lanbideetako Langileen Klaseko, eraikin publikoak mantentzeko Arduradun plazako, E Taldeko) zazpi (7) plaza betetzeko oinarri espezifikoaren (2021eko maiatzaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 100. zenbakian) lehenengo oinarrian xedatutakoarekin bat etorrira, oinarri horren arabera deitutako plaza kopurua handitu ahal izango baita lanpostu hutsak sortzen badira eta deialdian jaso ahal izango baitira Alkate-Udalburuaren ebazpenaren bidez. Hasieran deitutako plaza kopurua handitu ahal izango da, hala badagokio, deialdia gaingitu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik.

Bigarrena: 2021eko azaroaren 15ean Alkatetzaren 2021/003762 Dekretu bidez onetsi zen 2021eko enplegu eskaintza publikoa. Eskaintza hori 2021. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 11/2020 Legearen 19. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betez onetsi da. Basauriko Udalaren 2021eko enplegu eskaintzan badago Eraikin Publikoetako Mantentze lanen Arduradun plaza bat. Lanpostuen Zerrenda aztertuta, plaza horrek 2. Hizkuntza Eskakizuna du esleitura derrigortasun data iraungiarekin.

Hirugarrena: Txosten hau idatzi den egunean Eraikin Publikoetako Mantentze lanak egiteko zazpi Arduradunak, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako EEPei dagozkienak, auke-ratzeko prozesuan oraindik egiteke daude lehen probak, eta beraz, oraindik argitaratu gabe dago deialdia gaingitu duten pertsonen zerrenda. Beraz, badago hasieran deitutako kopurua 2021eko EEPn aurreikusitako eraikin publikoetako mantentze lanen Arduradun plazarekin handitzea.

Laugarrena: Ez da gastuaren baimena onartzeko proposamenik egin, deialdiaren xede diren postuak bitarteko funtzionarioek betetzen dituztelako eta gastu horiek aurrekontuetan jasota daudelako. Gainera, ez dira 2023ko ekitaldira arte bilduko hautaketa prozesuan postua lortzen duten karrerako funtzionarioak.

Horregatik guztiagatik, Basaturiko Udalak honako erabaki hau hartu zuen 2022ko martxoaren 23ko Alkatetzaren 2022/001108 Dekretuaren bidez:

Lehenengoa: Eraikin publikoetako mantentze lanen Arduradun plaza bat bete gabe gelditu denez eta 2021eko EEPa onetsita dagoenez, eraikin Publikoetako mantentze lanetarako Arduradun plazen deialdia, txanda irekitik eta oposizio sistema bidez Administrazio Bereziko Eskalako (Zerbitzu Berezien Azpieskalako, Lanbideetako Langileen Klaseko, eraikin publikoak mantentzeko Arduradun plazako, E Taldeko) zortzi (8) plaza-tara handitzea, zazpi (7) derrigorrezko 2. Hizkuntza Eskakizunarekin eta bat (1) derrigorrezkoa EZ den 2. Hizkuntza Eskakizunarekin.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena: Argitara ematen den egunaren biharamunetik aurrera Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Basaurin, 2022ko martxoaren 24an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren